

Xabier Letona



DANI BLANCO

## Indar handiagoa behar da

**GURE ESKU DAGO** ekimenak beste indar erakustaldi handia egin zuen joan den igandean, dozenaka milaka pertsona kalera ateraz eta erabakitze eskubidea aldarrikatuz. Festa giroz egin zen berriz aldarrikapena, iazko ekaineko giza katean bezala. Eta helburu oso zehatz batekin, berandu baino lehen, uneren batean euskal herritarrek erabaki eskubidea hautes-tontzietara eramatea.

Aipatu da, gainera, datorren urtean helburua hainbat herritara eramango dela: Dima, Ispaster, Hernani, Gipuzkoako Goierri... Orain aldarrikatu eta bihar erabaki. Joan den igandean, jostunek borondate anitz eta desberdinak josi zituzten norabide horretan, eta orain badirudi hurrengo pausoa hautatutako herrietan eltzea sutan jartzeko ordua iritsi dela. Datorren urtean ikusiko dira emaitzak, baina hauek onak izateko bada faktore bat Gure Esku Dago ekimenaren oinarrian dagoena eta ahaztu ezin dena: herritarrak eta gizartea indartzea, hauek erabaki eskubidean sinesten duten alderdiak ezinbestean norabide horretan jar ditzaten. Eta hori gehiago kostako da. Joan den igandean erakutsitakoa baino indar gehiago behar da herri oso bat norabide horretan jartzeko.

Igandekoaren itzalen artean dago San Mames, Anoeta eta Iruñeko zezen plaza ez bete izana. Twitterreko traolak #baietzbo-stakbete zioen. Bada ez, ez dira bete, eta hori ere oso kontuan hartu beharko du Gure Esku Dago eta ondorioak atera. Egongo dira hainbat arrazoi, eguraldia, formatoa, helburu handiegia, mezuren egokitasuna, udal hauteskundeak... kontua da ez dela

lortu motibatzea eta erakartzea iazko giza katean parte hartu zuten herritarren zati oso handia.

**KONFRONTAZIOA** berba klabeetakoa izan daiteke analisi honetan. Gure Esku Dago elkarren aurka ibili diren gizarte sektoreak bildu gura ditu erabaki eskubidearen inguruan, bai elkarren aurka ibili diren sektore abertzaleak, bai abertzale-espainiarzale dikotomiaren inguruan kokatzen direnak. Guztiak bat, eskubide demokratiko baten inguruan.

*Eusko Legebiltzarreko autogobernu ponentzian zein leku eta garrantzi izango du erabaki eskubideak?*

Hori islatu du Katalunian ANCK bultzatu duen prozesuak eta, modu desberdinean baina Eskoziako prozesuak ere bai. Katalunian Espainiaren jarrera itxi eta erasokorra klabea izan da mugimendu soberanista elikatze-ko. Eskozian alderantziz izan da, SNP eta bere esparru instituzional osoak gidatu du prozesua eta herritarrak erabaki eskubidera eraman. Ñabardura asko egin badaitetzke ere, Kataluniako prozesua gehiago sostengatu da Espainiaren lehian eta Eskozia gehiago britainiarren kultura demokratikoa.

Nahiko litzateke hemen ere britainiarren kultura hori, baina denak adierazten du Espainian konfrontazioaren eskemak garrantzi handiagoa izango duela etorki-

zunean. Eta Espainian eta Euskal Herrian iraganean izan diren konfrontazio ereduak kontuan izanda, komeni da azpimarratzea lehia hori erabat demokratikoa eta zibila izan behar duela, baina konfrontazio. Espainiako ezker berriak ekar lezake epe ertainera bestelako ikusmolderik, baina gaurkoz aukera hori urruti ikusten da, baita datozen hauteskunde orokorretarako herritarren batasunaren formula gauzatuko balitz ere.

**AURRERANTZEAN** ere ezinbestekoak izango dira masa mugimendu handiak, baina hori baino garrantzitsuagoa izango da erabaki eskubidea elikatze egunero hartuko diren erabakiak norabide horretan bultzatzea. Badira esparruak horretarako: Eusko Legebiltzarreko autogobernu ponentzian zein leku eta garrantzi izango du erabaki eskubideak?; Nafarroako Gobernu berriak nola zabalduko du, adibidez, D eredia eremu ez euskaldunean?; nola erantzuten zaie Auzitegi Konstituzionalak etengabe jartzen dituen helegiteei?; Udalbiltzarekin edo gabe, nola gauzatu behar da hiru lurralde administratiboetako erakunde elkar lana eguneroko oso gauza zehatzetan?; euskal gizarte-ri bete-betean eragiten dion bake prozesua bideratzeko ahalmenik ez duen gizarteak, bere etorkizunaz erabakitze indarrak izango ote du?

Galderak eta esparruak bata bestearen atzetik jar daitezke. Horietan guztietan eta gehiagotan Gure Esku Dagoen eta herritarren presioa nabaritzen bada, euskal gizarteak hauteskontzian ere erabakiko du, bestela nekez. ■